




ESKOLAKO OHARRAK

ESKOLA KIROLA

Dakizuen bezala, Oiartzun edozein unetan COVID19ko zonalde gorria izatera pasa daiteke. Hori dela eta, gure eskolako orduz kanpoko ekintzatan aldaketa txiki batzuk egin behar izan ditugu. "Eskola Kirola" "Eskola Fit" izatera pasatuko da. "Eskola Fit" zona gorrian sartzen garenean eskola kirola ordezkatzeko duen proiektua da. Proiektu honek, mugimendu fisikoa oinarri du, baina kirol kutsutik aldentzen da, aisi jolasak eta zainketa aktibo bat sustatuz. Ordutegia eskola kirolekoaren bera izango da eta zonalde gorrian sartzean zuzenean jarriko da martxan Eskola Fit. Herria zonalde naranjara itzultzean, automatikoki eskola kirolera itzuliko gara berriz ere.



ZORRIAK


Mesedez eskatzen dizuegu familia guztiei zuen seme-alaben buruak ongi begiratzeko; eta zorririk edo bartzarik izango balute tratamendua egiteko, denon artean zorriak eskolatik desagertarazteko. Eskerrik asko



APARKALEKUA

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekua eskolako langileek soilik erabili dezaketela, bai goizez bai eta arratsaldez ere.





SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa

Tornola, 6 (Ergoien auzoa)
20180 OIARTZUN

AROZENATARRAK kontzertu didaktikoa
2021eko otsailaren 27an arratsaldeko 17:00etan

San Esteban Parrokia. Oiartzun

AROZENATARRAK

Txistua Oiartzunen



Aitor, Urko eta Xanet Arozena

GEHIENEZKO AFOROA 60 LAGUN.
Izen emateak: 645005496



**LARTAUN TXISTU
TALDEA**

